

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4573

EBAZPENA, 2025eko urriaren 16koa, Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita honako hauentzako laguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera: hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioak, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibak eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak.

Hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteentzako (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioentzako, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibentzako eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako laguntzetarako deialdiaren 12. artikulua (2025eko irailaren 19ko EHAA), prozedura arautzen duenak, ezartzen du Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendaria batzorde bat izendatuko duela, laguntzak esleitzeko proposamena egiteko, honako kide hauekin:

Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzako ordezkari bat, zeina batzordeburua izango baita.

Hezkuntzako hiru lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-burutza bakoitzeko ordezkari bana.

Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzako ordezkari bat, zeina idazkaria izango baita.

Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da emakida-proposamena egiteaz arduratuko diren organoen osaera.

Aurrekarietan jasotakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Ebazpen honetan aipatutako deialdiaren 12. artikuluan jasotako ebaluazio-batzordearen osarearen berri emango da:

Batzordeburua:

Garbiñe Saenz de Buruaga Garralda, Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendaria, edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak:

Maite Ortuzar Bilbao, Hezkuntzako Arabako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzearen ordezkaria.

2025eko urriaren 29a, asteazkena

Teresa León Eguren, Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzearen ordezkaria.

Arantxa Salsamendi Salaverria, Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzearen ordezkaria.

Idazkaria:

Lorea Aguirrebeitia Castaño, Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratutzat joko da batzordeburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 16a.

Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendaria,
GARBIÑE SAENZ DE BURUAGA GARRALDA.